

Gorreria

Entzumena

zokoratutako zentzua

Sarritan, belarriak zaintzea ahazten zaigu. Haizeak astindutako zuhaitzaren hotsa edo txoritxoaren txorrotzio goxoa entzutetik, trafiko eta musikaren zarata bortitza jasatera pasa gara azken hamarkadetan, entzumena kaltetuz. Egoera larrienetan, erremediorik ez duen gorreria sortzera ere iritsi gaitzke. Hilaren 29a Gorren Nazioarteko Eguna dela-eta, gaiaren inguruko iritziak jaso ditugu sindikatuen eta medikuen ahotik.

Testua eta argazkiak:

MADDI SOROA

Jesús Algaba, medikua

“Entzumen galera lesio atzeraezina da”

Sortzez Albacetekoa bada ere, 35 urte daramatza Euskal Herrian Jesús Algaba doktoreak. Espainiako Otorrinolaringologia Elkarteko lehendakaria eta Euskal Herriko Unibertsitateko Otorrinolaringologiako irakasle titularra da. Donostiako Erietxeko eta Gipuzkoako Poliklinikako zerbitzuetako buru ere bada bera.

Belarriek gorputzeko atal ahantziak dirudite askotan.

Hala da, askotan gertatzen da hori, ez baitiugu entzumenari behar duen arreta jartzen. Ikusmena edota hortzak, esaterako, asko zaintzen ditugu, belarriak ordea ahaztuta ditugu eta ez ditugu behar bezala zaintzen; ez zaintzeaz gain, kaltetu egiten ditugu, zaratarekin adibidez.

Beraz, zaratak entzumena lesionatzen du?

90 dezibeliotik gorako edozein egoera kaltegarria da entzumenerako. Trafikoa, obrak, diskotekak, aurikularretatik musika entzutea... Horrek guztiak gogor eragiten dio entzumenari. Epe motzean ez da ondorioz nabaritzen, baina denbora luzez horrelako egoeretan egonez gero, etorkizunean pertsona horrek entzumen galera izateko arriskua du. Zarataren eraginez sortzen den gorreria lesio motela bezala ezagutzen da, epe luzean eragina baitu; horregatik, zaila da antzematen.



Geroz eta gazte gehiago joaten omen da otorrinoarengana.

Zoritxarrez. Entzumen azterketak egiten ditugunean, berehala ohartzen gara zarataren eraginez sorturiko entzumen galera duela gazte askok. Gaixoa ez da gai 4.000 frekuentzian –tonu altuan– dauden soinuak entzuteko. Normalean, lantegietan zarataz inguratuta dauden gazteen kasua izan ohi da, ez baitute entzumena behar bezala zaintzen. Eta beste gazte askok orduak pasatzen dituzte aurikularrekin musika bolumen altuan entzuten.

Fisiologikoki nola eragiten dio zaratak entzumenari?

Barraskilo izenez ezaguna den egituraren barnean aurkitzen diren zelula ziliatuak hondatu egiten dira lehen aipatu dugun 4.000 frekuentzia horretan. Behin galdu dena ezin da berreskuratu, zarataren ondorioz sorturiko entzumen galera lesio atzeraezina baita. Ez dago tratamendurik ez eta kirurgia egiteko aukerarik ere. Irtenbide bakarra kanpo-protesia edota inplante-protesia litzateke.

Prebentzioa litzateke jorratu beharreko bidea?

Lesioa atzeraezina denez, oso garrantzitsua da prebentzioa. Modu jarraian zarata bortitzak entzutea saihestu behar da eta langileek belarriak babestu behar dituzte. Gainera, berebiziko garrantzia du noizean behin otorrinoarengana joan eta entzumen azterketak egitea.

ZARATAZ jositako giro batean bizi gara, obrek, industriak nahiz aisialdiko ohiturek sortuak. Zarata horrek guztiak gaizki ohitu ditu gure belarriak eta gure entzumena. Adituek diotenaren arabera, horixe da arazorik larriena, zarata ohitu garela, alegia. Gizakiaren entzumena naturako soinu lasai nahiz bortitzak entzuteko sortua izan da, haizea, itsasoa eta txorien soinua, trumoi eta animalien orroak, baina ez hiriguneak edota teknologiaren garapenak sortzen duen zurrunbiloa. Ondorioz, zarata kaltegarria eta arriskutsua bihurtzen ari da osasunerako.

Zarata, neurri handi edo txikiagoan, gutxi eragiten digun fenomeno da; askotan, ordea, ez gara horretaz konturatzen eta normaltzat jotzen ditugu egunero entzuten ditugun trafiko edota makina hotsak. Horren inguruan dugun ezjakintasunaz eta jasan ditzakegun ondorioez mintzatu zaizkigu azpiko bi elkarrizketetan Jesús Algaba otorrinoa eta Jesus Uzkudun sindikalista. ■



Jesus Uzkudun, CC00

“Lantegiek ez dute ez legea betetzen, ez osasuna behar bezala baloratzen”

1996az geroztik Euskadiko CC00ko Lan Osasun eta Ingurugiro idazkaria da Jesus Uzkudun. Bere ustez, zarata da lantegietan dauden elementu arriskutsuenetan okerrena, langile kopuru handienari eragiten baitio.

CC00 sindikatuaren arabera, gaur egun Euskal Herriko langilearen %40 inguruk du lan munduko zarataren eraginez sorturiko entzumen galera.

Zarata lan munduan dagoen kutsadurarik hedatuenetakoa da. Besteak beste, metal, paper, egur, erai-kuntza, arrantza edota garraio arloan lan egiten duen milaka laguni eragiten dio. Duela 150 urte errementari, hargin edota artilleroen gaitza izaten zen; egun, ordea, geroz eta gehiago zabaltzen ari den gaitza da hau. Lantegiek ez dute ez legea betetzen, ez osasuna behar bezala baloratzen.

Zer dio legeak?

Europako zuzentarauaren arabera, enpresariaren bete-beharra litzateke lanpostu bat aldatzen den bakoitzean inguruko zarata ebaluatzea, urtero 85 dezibeliotik gorako postuetan neurketak egitea eta hiru urtez behin 80 eta 85 dezibelio arteko postuak neurtzea. Horretaz gain, enpresariak lantegiko zarata gutxitu beharko luke



eta entzumen azterketak egin beharko litzateke langileei, baita entzumena babesteko tapoi edo kaskoak eman ere.

Zein da sindikatuaren jarrera?

Osasuna ez dago salgai, baina domino efektua ematen dela uste dugu: enpresariak arrisku-plusak ordaintzen dituzte, lantegi isilagoak egitea garestiago ateratzen zaielako. Langile askok ere nahiago dute arrisku-plusa kobratu, ez dutelako entzumena behar bezala baloratzen. Horrek, ordea, ez du arazoa errotik konponetzen. Entzumen galera duten langileek baliaezintasunik gabeko lesio iraunkorragatik dirua kobratu deza-

kete, baita audiofonia jaso ere eta beraz, gizarte segurantzak diru asko galduko luke. Orduan bai, ikuskatzailak bidaliko lituzke enpresetara legea bete dadin.

Konponbiderik ikusten al duzu?

Zaratak sortzen duen arazoaz jabetzea da lehen urratsa. Ez badugu gaixorik amaitu nahi, lantoki eta hiriguneetan dagoen zarata duen garrantzia eman behar diogu. Zarata modernitatearen ordaina da, gure baliabideen gaitetik bizi baikara. Osasunari duen balorea eman behar zaio. Ilargira joateko gai bagara, makinak eta hiriak ere isilarazi ditzakegu.